

 AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H	IL0150	Hezkuntza sailaren diru-laguntza
---	---------------	---

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Gizarte eta hezkuntza arloko jarduerak finantzatzeko diru-laguntza da, kirola eta euskara ere biltzen dituena.

NORK ESKA DEZAKE?

Ikastetxeak, udalerriko institutuak

Honekin lotura duten irabaz asmorik gabeko elkarteak

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E124 Gizarte-hezkuntza arloko ekimenak garatzeko dirulaguntza-eskaria](#)
- [E142 IGE eta ikastetxeekin lankidetzaren hitzarmena](#)

-Eskabidea aurkezten duenaren NAN.

-Erakundearen IFK, erakunde juridikoa bada.

-Urtean egin beharreko jardueren proiektu xehatua. Proiektu horrek, gutxienez, jarduera horietako bakoitzaren azalpena bildu beharko du, baita zein bizilagun dituen xede, zein helburu lortu nahi den eta aurrekontu zenbatetsia zein den ere.

-Jarduera zenbat laguni zuzenduta dagoen dioen aitortzea, hala dagokionean.

-Eskatzailearen zerga-egoitza dagoen lurralde historikoko Foru-Ogasunarekiko betebeharrak egunean daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak. Erakundeok egin behar dituzte ziurtagiriak, eta deialdi hau argitaratu ondokoak izan behar dute. Eskatzaileak 3.000 eurotik beherako diru-laguntza eskatzen badu, erantzukizunpeko aitortzen sinplifikatua aurkez dezake haien ordean.

- Jarduera berdinerako beste erakunde publiko edo pribatu bati diru-laguntza eskatu zaion edo ez berariaz aitortzea.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea - HAZ](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

Telematikoki:

- [Hasi online tramitazioa](#)

Posta arrunta:

- Posta ziurtatua
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Ez da ezer kostatzen.

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: 3 hilabete

Erantzunkizun-aitorpena onartzen da
Isiltasun-administratiboaren izaera: Aldekoa

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [Amorebieta-Etxanoko udalaren diru-laguntzakarautzeko ordenantza eta gizarte-ongizate, kirol, kultura, hezkuntza nahiz euskara arloetako diru-laguntzei buruzko arau bereziak](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

Eskaria eta agiriak jaso eta egiaztatu

Erregistratu

Emakida dekretua

NORK ONARTU BEHAR DU?

Gizarte ekintza zinegotzi ordezkaria

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Gizarte ekintza - Gizarte Zerbitzuak

OHARRAK